

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

63/2015 Foru Agindua, otsailaren 27koa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 420/2014 Foru Aginduak, irailaren 29koa, ezarritako baldintzak betetzea onartzen duena. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Zigoitiko udalerriko Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizaezinean zentro hipiko bat instalatzeko plan bereziaren espedientea

I. AURREKARIAK

Lehena. Irailaren 29ko 420/2014 Foru Aginduaren bidez, behi betiko onartu zen Zigoitiko Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizaezineko 6-1338 lurzatian zentro hipiko bat instalatzeko plan bereziaren espedientea.

Bigarrena. 420/2014 Foru Agindu berak ezarri zuen adierazitako baldintzak ez zirela funtsezkoak eta, haiek zuzendutakoan, espedientea foru aldundira igorriko zela, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa zela adierazteko, izapideak egiteko eta argitaratzeko.

Hirugarrena. 2015eko otsailaren 18an, espedientearen testu bateratua sartu zen aldundi honen erregistroan.

II. OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertu dira eta egiaztatu da aurrean aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete direla.

Horregatik, eta nire esku ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe XEDATZEN DUT:

Lehena. Betetzat ematea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren irailaren 29ko 420/2014 Foru Aginduak, Zigoitiko udalerriko Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizaezinean zentro hipiko bat instalatzeko plan bereziaren espedientea behin betiko onartu zuenak, ezarritako baldintzak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 27a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO

PLAN BEREZIA GARATZEKO HIRIGINTZA ARAUAK

Plan berezia garatzeko hirigintza arauak biltzen dituzte lurzoru urbanizaezineko (Z-5 nekazaritza babesteko zona) onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioetarako eta azpiegituretarako Zigoitiko udal planeamenduko arau subsidiarioetan jaso eta 200. artikuluan zehaztutakoak (eraikuntzakoak diren erabilera eta jardueri esleitutako hirigintza parametroak).

- Eraikuntzakoak diren erabilera eta jarduera baimenduak:
 - jolas hipikari lotutako nekazaritzako biltegiak.
 - onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak: jolaserako zentro hipikoa.
- eraikigarritasuna: 0,10 m²/m²
- Lotutako gutxieneko azalera: 1338 Lurzatiaren azalera.
- Gehieneko okupazioa: ehuneko 10.
- Gehieneko solairu kopurua: 2
- Metroak, gehienez, erlaitzera edo teiltategalera: 7 metro.
- Mugetarainoko tartea: 10 metro.
- Errepideetarainoko tartea: 20/1990 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko errepideenak, ezarritakoak.
- Landa bideetarainoko tartea: otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko landa bideak erabiltzeari eta babesteari buruzkoak, ezarritakoak.
- Gutxieneko lurzatia, lur zatiketarako: ez da lurzatikatzerik onartuko.
- Lurzati bereko eraikinen arteko gutxieneko tartea: librea.
- Arau higieniko-sanitarioak eta zerbitzuzkoak: irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan, abeltzaintza ustiapenen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumen alorrekoak ezartzen dituenen, xedatutakoak. Horrez gain, jarduera hipiko horretan ez da baimenduko ezer isurtzerik ez lurrera ez ibilgu publikora.
- Baldintza estetikoak: teiltatu makurra. Gutxieneko eta gehieneko aldapa, hurrenez hurren: ehuneko 20 eta ehuneko 35 (isurki bi edo gehiagoko teiltatua). Isurki bateko teiltatua. Gutxieneko eta gehieneko aldapa, hurrenez hurren: ehuneko 10 eta ehuneko 30. Diseinu baldintzei eta erabilitako materialei dagokienez, eraikinaren ingurua errespetatuko da.
- Abeltzaintzari lotutako erabilerak dituzten eraikinen eta Etxabari Ibiñako hiri lurzoruaren arteko gutxieneko tartea: 150 metro.

1. Hirigintza parametroen definizioa

Zigoitiko udal planeamenduko arau subsidiarioetan zehazten dira eraikinaren eta aplikazio lurzatiaren hirigintza parametroak.

2. Irisgarritasuna bermatzen duten parametroen definizioa

Abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, irisgarritasuna sustatzekoak, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak, eta hirigintza planeamenduen tresnek eta hirigintza proiektuek xedatutakoarekin bat etorriz, artikulua hauek ezartzen dira:

Hiri inguruneen eta espazio publikoen irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak

1. Onura publikoko tokiek, hots, nola bide publikoek, parkeek eta plazek hala haietako eki-poek, zerbitzu publikoek eta hiri altzariak, irisgarritasuna bermatuko dute, legeak eta hura garatzen duten arauak ezarritako moduan.

2. Hirigintza planeamenduko tresnek, batez ere, xehetasun azterketek eta hirigintza eta egikaritze proiektuek, behar bezala bermatuko dute urbanizazio elementuen eta eremu horretako hiri altzarien irisgarritasuna, eta ez dira ez onartuko ez emango lizentziak, baldin eta legean eta hura garatzen duten arauetan xedatutako zehaztapenak eta oinarritzko irizpideak betetzen ez badira.

Eraikinen irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak

1. Oin berriko eraikinak, lurpekoak barne, eraikitze obrak egingo dira haien irisgarritasuna lege honen eta hura garatzeko arauetan xedatutako eran bermatzeko moduan.

2. Ostalaritzarako oin berriko eraikin eta instalazioek beren irisgarritasuna bermatuko dute.

3. Pertsona guztiek izango dute bermatuta autonomoki erabili ahal izatea hala bide publikotik duen sarrera nola zerbitzu eta eraikin atxiki komunak eta aparkalekuak.

4. Gelak eta toki komunak lotzen dituztenek eta erreserbatutako gela erabilera eta sarbideek pertsona orok erabili ahal izatea bermatuko dute.

Erreserbak erabilera publikoko eraikinen inguruan: aparkalekuak

1. Oinezkoen sarbideetatik hurbil, mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuentzako plazak erreserbatuko dira nola zona eta toki irekietan hala erabilera publikoko garaje eta aparkalekuan.

2. Aparkaleku bat erreserbatuko da berrogeiko edo haren zatikiko.

3. 5,00 x 2,60 metroko hogeit hamar aparkaleku egingo dira eta bat 5,00 x 3,60 metrokoa, ezinduen ibilgailu berezientzat.